

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

2395

62/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioari Bake Epaitegietako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena.

2011ko uztailaren 26ko 179/2011 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioari Bake Epaitegietako lanpostuen zerrendak onartu ziren. Dekretu hori hainbat aldiz aldatu da.

Lanpostuen zerrendak Justizia Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko ebazpena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521., 522. eta 523. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

Ondorioz, Lan eta Justiziako sailburuak proposatuta, Lan eta Justizia sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3. Artikuluak xedatzen duen legez, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko apirilaren 24an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioari bake epaitegiei dagozkien lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak. Zerrenda horiek Dekretu honen eranskinean daude jasota.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.— Errekurtsoak.

Dekretu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENENETATIK BIGARRENA.— Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko apirilaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lan eta Justiziako sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

ERANSKINA, APIRILAREN 24KO 62/2018 DEKRETUARENA

Aldaketen zerrenda

ARABA

Aldaketa mota: Sorkuntza
Saila: Lan eta Justizia Saila
Kudeaketa Atala: Justizia Administrazioko Zuzendaritza
Destinoko Zentroa: Aiarako Bake Epaitegia (Udal Elkartzea)
Udalerrria: Aiara

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Udala	Betetzeko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berriazko ezagutza	HE	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berriazko osagarria	Oharrak
Sorkuntza	480007	66	Bake Epaitegiko Prozesu eta Administrazio Kudeatzalea	B	Aiara	LB	B	Prozesu eta Administrazio Kudeaketa	Diplomatura					3.544,92	9.252,72	
Sorkuntza	680015	36	Bake Epaitegiko Laguntza Judiziala	B	Aiara	LB	D	Laguntza Judiziala	DBHko graduatua edo baliokidea		2	Urtarr-15		2.105,04	6.563,16	